



# **ATARIKO PROBA**

## **3.HE**



- 1.- *Orain dela bi aste joan zen azkenekoz medikuarenera, baina ..... hainbat aldiz joana zen osasun-zentrora.*
  - a) honezkero
  - b) ordurako
  - c) ordutik hona
  - d) geroztik
  
- 2.- Zein da ZUZENA?
  - a) Sail ezberdinetako langileek elkarri lagundu beharko liokete.
  - b) Elkarren dugun konfiantza ezinbestekoa da gure lana ondo egiteko.
  - c) Datorren asteko bilerak elkarrengan hobeto ezagutzeko balioko digu.
  - d) Hitzaldia hasi baino lehen hizlariak elkar eman zuten eskua.
  
- 3.- *Munduan zehar botika faltsu ugari saltzen direla salatu du Osasunaren Mundu Erakundeak; .....*
  - a) osasunarentzat kaltegarriak izatekotan saldu egingo lituzkete.
  - b) kasurik gehienetan arriskurik gabeko produktuak izaten baitira.
  - c) erosleentzat berme osoko produktuak direnez gero.
  - d) nolana ere, herrialde behartsuetan ohikoagoa da.
  
- 4.- *Kirol-medikuok kirolaria ..... egoteko ahaleginak egin behar ditugu.*
  - a) baliotsu
  - b) errukitsu
  - c) odoltsu
  - d) sasoitsu
  
- 5.- *Bizi-estilo osasuntsuak eta kirol-ohiturak bultzatzeko, ez dago ariketa fisikoaren onurak aditzera ematea bezalakorik. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*
  - a) Bizimodu osasuntsuaren eta kirolaren alde egiteko modurik onena ariketa fisikoaren balioa erakustea da.
  - b) Kirolaren onurak bultzatuz gero, ariketa fisikoa aditzera ematen da.
  - c) Ariketa fisikoaren alde onak eta bizimodu osasuntsua uztartzeko, kirola bultzatzea da onena.
  - d) Bizi-estiloaren onurak ezagutaraztea da modurik onena ariketa fisikoa egiteko.



6.- Zein da ZUZENA?

- a) Ba al dago bizi-maila hobetzerik ingurumenari kalte larririk egin gabe?
- b) Zirujauak ebakuntza egin arte itxarongela horretan egotea esan dit.
- c) Egoera arriskutsuei aurre egiteko, ezinbestekoa da su-itzialgailua erabili jakitea.
- d) Utzi nizekizun anatomiako apunteak itzultzeko nahi dut, neuk ere behar ditut eta.

7.- *Gizakiok klima-aldaketara ..... beharko dugula uste dute zientzialariek.*

- a) saiatu
- b) galarazi
- c) saihestu
- d) egokitu

8.- *Lanean sexuen parekotasuna lortzea dugu XXI. mendeko erronka.*  
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

- a) XXI. menderako asmoa lanean sexuak alderatzea da.
- b) Lanean sexuen arteko berdintasuna lortzea da XXI. mendeko helburua.
- c) Sexuak lanean bata bestearengandik ezberdintzea da XXI. mendeko asmoa.
- d) XXI. mendeko helburua lanak sexuen arabera parekatzea lortzea da.

9.- Zein da ZUZENA?

- a) Erizainek gelatik irtenarazi naute, ibiltzeak on egiten dit eta.
- b) Gaixotasunak zirela eta, sarritan joanarazi zioten ospitalera.
- c) Botikariek produkturik ezagunenak erosarazten gaituzte sarritan.
- d) Medikuek ohatilan etzanarazi zidan azterketa medikoa egiteko.

10.- *Hizlariak drogaletasunaren ..... zion hasieratik.*

- a) iritzia eman
- b) gaiari heldu
- c) buruz mintzatu
- d) aintzat hartu



11.- *Ikerketa-fasean dauden bi botika horiek gaitzaren ..... moteldu lezakete.*

- a) aurkezpena
- b) eremua
- c) bilakaera
- d) kopurua

12.- *Limoi-ura ....., botilan zegoena edan eta eztarria erre du.*

- a) zela
- b) izatekotan
- c) zelarik
- d) zelakoan

13.- *Gaur egun erabiltzen ditugun botikek sintomei ..... diete, eta horiek samurtzen nahiz ..... ahalegintzen dira, besterik ez.*

- a) eragiten / arintzen
- b) baztertzen / argitzen
- c) aurka egiten / areagotzen
- d) kaltetzen / jasotzen

14.- Zein da ZUZENA?

- a) Penizilinarekin egindako lehenengo saiakuntza klinikoa 1941eko abenduak 12koa da.
- b) Orain dela urte mordoia amaitu zituen medikuntza-ikasketak, 1996. ekainaren 22.
- c) Futbolean jokatzen zebilela bihotzekoak eman zion aspaldi, 1974. ekainak 26an.
- d) Gogoan dut lehenengo gaixoa aztertu nuen eguna, 1985eko martxoaren 12a.

15.- *Buruko mina izan ..... zerbait larriagoa izango banu, zer egin beharko nuke?*

- a) legez
- b) lekuan
- c) beharrean
- d) gain



16.- *Paziente horren historia-zenbakia hauxe duzu: .....*

- a) zazpiehun eta hogeita hamar mila.
- b) zazpiehun eta hogei eta hamar mila.
- c) zazpiehun hogei eta hamar mila.
- d) zazpiehun hogeita hamar mila.

17.- *Nahi baduzu, erradiologiara lagundu ....., hango eginbeharrekoak bukatu ondoren espezialistarengana elkarrekin joan .....*

- a) zaitzaket / gaitezen.
- b) nazakezu / genezake.
- c) zaitzakegu / dezagun.
- d) diezazkidazun / gaitezke.

18.- Zein da ZUZENA?

- a) Datorren astean, litekeena da traumatologiako zerbitzua lekuz aldatuko dutela.
- b) Gure ustez, gaixo horri hemendik gutxira behin betiko alta emango diotela.
- c) Ebakuntza goizean egin dioten arren, badirudi arratsaldean etxera joango da.
- d) Azkeneko ikerketen arabera, baliteke Alzheimerrari buruz berri onak izatea.

19.- *Erietxean egon ondoren, lanari ..... gogoz dabil.*

- a) ekiteko
- b) jarduteko
- c) egiteko
- d) erabiltzeko

20.- *Zientzialariek odolaren ..... artifiziala aurkitu omen dute.*

- a) mailako
- b) ordezko
- c) bezalako
- d) ereduazko



21.- ..... *duzu telebista ikusteko gela, logelatik irten eta ezkerretara.*

- a) Bat-batean
- b) Txitean-pitean
- c) Bertatik bertara
- d) Hitzetik hortzera

22.-*Ur pozoituak sor ditzakeen arriskuak saihesteko moduak aztertzen ari dira. ...., askoz hobea da kalteei aurea garaiz hartzea.*

- a) Berriz
- b) Alderantziz
- c) Izan ere
- d) Harrezkero

23.-*Zenbait herrialdetan zelula amen bidezko tratamenduak erabiltzen hasiak dira, eragin ditzakeen arazoengatik inguruan zalantza handiak izanda ere. Zer esan nahi du esaldi horrek?*

- a) Herrialde batzuetan zelula amen bidez argitu nahi dituztela tratamenduen inguruan dauden zalantza handiak.
- b) Zelula amak erabiltzeko, sor ditzaketen arazoengatik inguruan zenbait herrialdetan zalantzak argitu beharko direla.
- c) Herrialde batzuetan zelula amak erabiltzen dituztela, sor ditzaketen arazoei buruz zalantzak egon arren.
- d) Inguruko herrialdeetan zelula amen erabilerak zalantzak eragiten dituzenez, herrialde batzuetan ugaritu egin direla tratamenduak.

24.- Sinonimo bikote hauetatik zein dago ONDO?

- a) antzeman / nabaritu
- b) islatu / iradoki
- c) hedatu / erantsi
- d) galarazi / baimendu

25.-Zein da ZUZENA?

- a) Haserretzen denean, ez du kontrolatzen zer esaten duela.
- b) Lanera ez joateko zer aitzakia asmatuko duen pentsatzen ari da.
- c) Ea zer sentitzen dut galdetu dit medikuak, analisietan ez da ezer ikusten eta.
- d) Ez digu esan oporrak non igaroko ditu, hondartzan ala mendian.



26.-*Larrialdietara odola ..... ekarri zuten.*

- a) zetorrela
- b) zeritzola
- c) zeriola
- d) zirudiela

27.- *– Diabetikoa izanik, azukrea kontrolatuta izango duzu, ezta?*

*– .....*

- a) Kontrolatzea da, gero!
- b) Beharko!
- c) Bejondeizula!
- d) Kontrolatzea, aizu!

28.-*Gaixotasun larri baten ondorengo atsedena ..... da guztiz sendatzeko.*

- a) aurretiazkoa
- b) baiezkoa
- c) irudizkoa
- d) funtsezkoa

29.-*Urteroko osasun-azterketa batek ezkutuko eritasun asko azaleratu litzake, benetan larri bihurtu baino lehen. Zer esan nahi du esaldi horrek?*

- a) Ezkutuko eritasuna larri bihurtzeko, urteroko osasun-azterketa azaldu behar dela.
- b) Urtero osasun-azterketa bat egitean, agerian ez dauden eritasunak larriak izan aurretik ikus daitezkeela.
- c) Ezkutuko eritasun asko azaleratu beharko liratekeela urteroko osasun-azterketan, larri ez bihurtzeko.
- d) Urteroko osasun-azterketa egin aurretik, ezkutuan dauden eritasun larriak azaleratuko direla.

30.-*Erizainak esan digunez, ..... dituzte gaixoa ohatilatik jaisteko.*

- a) burutik egin
- b) indarrean jarri
- c) gorriak ikusi
- d) harira joan



31.- Jarraitu elkarrizketa:

– *Erradiografiak aztertu ondoren, ebakuntza ez dela beharrezkoa uste dut.*

– .....

- a) Egitea ere!
- b) Lasai, ez da ezer!
- c) Neu ere horretan nago!
- d) Ezta beharrezkoa ere!

32.-*Langile gutxi gara anbulatorioan, eta lana ondo egiteko ..... ibiltzen gara.*

- a) zoroarena egiten
- b) zoratu beharrean
- c) zoro-plantak egiten
- d) zoroak zoro

33.-*Europako hainbat unibertsitatetan egiten ari diren ikerketak berritzaileak dira; izan ere, ez doaz aurretik egindakoen ..... beretik.*

- a) epe
- b) muga
- c) zenbaki
- d) ildo

34.-*Gaur eguneko gizakiok garai batean ezezagunak ziren zenbait gaixotasun ditugu; .....*

- a) gaixotasun ezagunak izateko arrazoiak, adibidez, horiexek dira.
- b) horregatik, diabetesaren ezaugarri nagusia glukosa-maila altua izatea da.
- c) horietako batzuk gero eta ugariagoak izango dira, daukagun bizitzeko moduarengatik.
- d) gaixotasun-mota horiek ez dira inoiz gizakietan agertuko, hain zuzen ere.

35.-*Hiesa dutenek hasieran ez dute ezer arrarorik nabaritzen, birusa lo ..... baitago.*

- a) gisa
- b) eran
- c) moduko
- d) antzean



36.- Esaldi batean ortografia akats bat dago. Zeinetan?

- a) Sena guztiz galdu zuen, eta orain zoroetxean dago, eroz inguraturik.
- b) Txostena ez da mehea, orri ugari dauzka, gaixoa sarritan ospitaleratu dute eta.
- c) Auzoko osasun-zentroa ez dago hemendik oso urrun, bide horretatik gorantz.
- d) Kafe-makina ondatu egin da eta beheko kafetegira jaitsi behar izan dugu.

37.- *Niri hitzontzi hutsa iruditu zitzaidan administrari laguntzaile berria.*

Zer esan nahi du azpimarratutakoak?

- a) Azkar hitz egiten zuela.
- b) Hitz hutsak esaten zituela.
- c) Hitzak akatsekin esaten zituela.
- d) Asko hitz egiten zuela.

38.- *Bihotzeko transplantea behar duten askorentzat zaila izaten da ordezeko organo egokia aurkitzea. ...., zelula amen bidez bihotzeko gaitzak sendatzeko egiten ari diren ahaleginek itxaropen handia sortu dute.*

- a) Horrenbestez
- b) Bestela
- c) Hurrenez hurren
- d) Badaezpada

39.- ..... *makal egotea! Zutik ere ezin zara egon, gizona!*

- a) Alajaina
- b) Hori da, hori,
- c) Baita zera ere
- d) Baietz

40.- *Egun, ..... jatea osasunarekin eta elikadura orekatuarekin lotzen dugu.*

- a) gantzak
- b) lekaleak
- c) urdailak
- d) adabakiak



- 41.- *Gehiago zaindu beharko zenuke zeure burua, amonak esaten zigun moduan: " ....."*.
- a) Bost xentimoko pupua, hamar metroko trapua.
  - b) Osasuna, munduko ondasuna.
  - c) Beti gaixo eta sekula hil ez.
  - d) Mihiarekin egiten den mina, azkena sendatzen.
- 42.- *Hegaztien gripea dela eta, herrialde askotan hegaztiak etxaldeetan itxita egon behar dute. Beraz, arazoari irtenbidea aurkitu arte ezin izango da, ....., azoketan hegaztirik saldu.*
- a) ordea
  - b) bestetik
  - c) alegia
  - d) besteak beste
- 43.- Nola esaten zaio erditzeko dagoen emakumeari laguntzen dion pertsonari?
- a) Sortzailea
  - b) Umeduna
  - c) Emagina
  - d) Haurtzaina
- 44.- *Poliomielitisa lau herrialdetan soilik da eritasun endemikoa, eta okerrik ....., epe laburrean desagertu egingo dela adierazi du Osasunaren Mundu Erakundeak.*
- a) ezean
  - b) balira
  - c) izan ezik
  - d) ez ezik
- 45.- Zein da ZUZENA?
- a) Medikuek berak egin digu ebakuntza anaiari eta bioi.
  - b) Beste ordutan egingo dizkidate erradiografiak.
  - c) Osasun-laguntzaile teknikoak bezala ari da lanean.
  - d) Beldur bat pasatu dut medikuak igeltsua kendu didanean!



---

## ORDEZKO GALDERAK

46.- *Medikua naizen aldetik, ..... esaten dizut kirola egin beharko zenukeela.*

- a) behin batez
- b) hobe beharrez
- c) ahuspez
- d) ondorioz

47.- *Erregutu behar izan diet bakean utz .....*

- a) litzaizkidake.
- b) diezadakete.
- c) nazaten.
- d) daitezen.

48.- *..... arazoak direla medio, bikote askok medikuongana jotzen dute laguntza eske.*

- a) Antzutasun
- b) Burutapen
- c) Zatiketa
- d) Begizkoen



## ATARIKO PROBA - 3.HE

### ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1	<b>B</b>	2	<b>A</b>	3	<b>D</b>	4	<b>D</b>	5	<b>A</b>
6	<b>A</b>	7	<b>D</b>	8	<b>B</b>	9	<b>A</b>	10	<b>B</b>
11	<b>C</b>	12	<b>D</b>	13	<b>A</b>	14	<b>D</b>	15	<b>C</b>
16	<b>A</b>	17	<b>A</b>	18	<b>D</b>	19	<b>A</b>	20	<b>B</b>
21	<b>C</b>	22	<b>C</b>	23	<b>C</b>	24	<b>A</b>	25	<b>B</b>
26	<b>C</b>	27	<b>B</b>	28	<b>D</b>	29	<b>B</b>	30	<b>C</b>
31	<b>C</b>	32	<b>B</b>	33	<b>D</b>	34	<b>C</b>	35	<b>D</b>
36	<b>D</b>	37	<b>D</b>	38	<b>A</b>	39	<b>B</b>	40	<b>B</b>
41	<b>B</b>	42	<b>D</b>	43	<b>C</b>	44	<b>A</b>	45	<b>A</b>

#### ORDEZKO GALDERAK

46	<b>B</b>	47	<b>C</b>	48	<b>A</b>
----	----------	----	----------	----	----------